

BETEKADA BIDEZKO

NAHASMENDUA EKIDITEKO

TRESNA

*June Agirrebaltzategi, Naroa Agorria,  
Gaizka De Bernedo, Pablo Fernandez de  
Corres eta Xabi Nanclares*



## BALIO PROPOSAMENA

Munduan betekada bidezko nahasmendua duen jendearen bizitza aldatzen du gure tresnak. Gure bezeroei, hau da, betekada bidezko nahasmendua dutenei, bizitza osasuntsuago bat eskaini nahi diegu elikadurarekin duten arazoa konponduz. Gaixotasun honek epe luzera osasun arazo larriak sor ditzake. Depresioa kausa bat izatearren, elikagai-nahaste mota honen ondorio negatibo bat izan daiteke; izan ere, betekadaren ondoren, patologia hori dutenak gaizki sentitzen dira eta autoestima kaltetuta ikusten dute. Horrez gain, pisuz igotzea beste ondorio negatibo bat da eta ondorio larriak eragiten ditu osasunean, hala nola: arteria-hipertentsioa, diabetesa, kolesterol altua, kardiopatia...

Gure asmakizun honekin bezeroei berritasuna eskaintzen diegu, jorratzen dugun gaixotasuna nahiko ikusezina baita gaur egungo gizartean. Gainera, lana errazten diegu bezeroei, makina edozein momentutan hautsi ezker, zerbitzu teknikoa baliagarria edukiko luketelako.

Prezioaren inguruan, pertsona ororentzat eskuragarria den produktu bat saltzeko, osasun zerbitzu publikoaren diru laguntzen bila gaude hain garesti ez ateratzeko. Berez, gailuaren prezio orokorra 600€koa da. Prezio altua dirudien arren, atzean duen guztia kontuan hartu beharko genuke: zerbitzu teknikoa, segurua, Euskal Herrian ekoiztutako produktua, nutrizionista, kalitate honeko materiala... Diseinu sinplea du, ez du gehiegizko atentzia deitzen eta kolore desberdinak ditu bezeroak bere sukaldearen eta hozkailuaren arabera gustukoena eta diskretuena aukera dezan. Diseinu sinpleaz gain, erabilgarritasun sinplea du eta ez ditu amaitezinak diren instrukzioak. Hori gutxi balitz, produktuarekin batera bideo bat heltzen zaio bezeroari, 2:00 minutuko iraupena duena eta honi esker erosi bezain laster denbora gutxian azkar ikasiko du egokitasunez erabiltzen.